

# EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA

2008-2009

Euskal nortasun kolektiboa(k):  
diskurtsoak eta egituraketa hegemonikoa  
Mario Zubiaga  
EHU

Azpititulua:

*Patxi-Lopezen garaia, edo hegemonia pidgin-a*

# EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA

## EUSKAL

(euskara, eta hizkuntzak ardazten duen kultura,  
edo euskal herrietan daudenena)

## KULTURGINTZA

(kultura edo kultur-eraikuntza,  
kulturari buruzko ardura, *kulturkampf*..)

## TRANS-MISIOA

(misiolarien oinordekotza denboran,  
lurraldean, gizartean zehar...zergatik? IABB)



**Zeitgeist**



**Volksgeist**

### GLOBALAZ

Bauman, likidotasun  
erreflexiboa?  
eta Jon Sudupe:

- Tesia: aniztasun hazkorra
- Antitesia: Multikulturalismo  
(in)tolerantea
- Sintesia: kosmopolitismo  
kantiarra
- Parentesia: aberastasunaren  
banaketa

Nola kudeatu  
aniztasun hazkorra?  
Segregazio, akulturazio, aitortza  
ereduen krisian? (J.Amezaga)

Nola ziurtatu euskal kulturaren  
transmisioa mundu globalean?

Zeintzuk dira orain behar ditugun  
diskurtsoak,  
pentsamoldeak, tresnak?

### TOKIKOAZ

("Euskal herria krisian", 98ko  
porrota...) protesta ziklo baten  
amaiera, abertzaletasunaren  
krisi politikoa, euskalduntzearen  
mugak, tresna politikoen  
gabezia/hutsala, etorkin berriak,  
erabileraren (lingua hila) eta  
kalitatearen (lingua creole)  
erronka...

Atzera begira...

-Nola izan da posible euskal hiztunen kopurua %20tik %40ra igarotzea azken bi hamarkadetan? (Patxi Baztarrika)

-Nola da posible kultur gutxiengo batek, izaera galdu gabe, bere egoera hobetu izana?

Gutxiengo hori **operazio hegemoniko** batean kate begi izan delako...

HEGEMONIA POLITIKO ABERTZALEAK  
EUSKARAREN HEGEMONIZAZIO KULTURALA BULTZATU DU


Aurrera begira...

-Abertzaletasunaren hegemonia politikoa krisian al dago?

-Hala bada, nola izango da posible etorkizunean kultur gutxiengo horrek bere egoera hobetzea?

Azter dezagun operazio hegemonikoa...

**POLITIKAREN EREMU PARADOGIKOA (Warrenetik, Zizekera, Laclaren eskutik)**



# HEGEMONIAZ... Zizek eta Laclau.

Gatazka belikoaren fetixetik honantzago, deliberazioaren ametsaz haratago, **Hegemonia** (Laclau): “Parteak osotasun unibertsalaren hutsunea betetzeko burutzen duen ahalegina...”

Ahalegin hori **borroka diskurtsibo/sinbolikora** eramango du Laclauk.

Eduki partzialaren batek hegemonizatuko du beti ustez unibertsala den nozio ideologiko oro, bere unibertsaltasuna koloretuz, bere eraginkortasuna ahalbidetuz...partikular guztiek dute beraien baitan unibertsaltasuna betetzeko joera, ez dago unibertsal neutralik...

Kontzeptu ideologikoaren **eduki tipikoa** zein izango den, horretan datza **borroka ideologikoa**.

Zizek... eta **Guadalajarako artzaina...**



# Eduki tipikoa ez da inoiz bakarra, eta hortxe dago gakoa...


EDUKI TIPIKOEN EKIBALENTZIA (baliokidetzak) KATEAK HEZURMAMITZEN DU HEGEMONIA

## GALDERAK

1. Nolakoa da “Rajoy-ren euskal neskatila” tipikoa? Arantza Quiroga: ez denagatik, dena. Denagatik, ez dena.
2. “Vasco tipikoa” edo euskal herritarraren baitako kateatze hegemonikoa, kementsua-abertzalea-euskalduna izango al da?
3. Neskatoa “euskara duena” izatea helburu izanik, kateatze alternatiborik edo hobeagorik ba al dago?
4. Hortaz, neskatoa abertzalea ez bada, euskalduna izango al da?


Komunitate linguistikoa datu objektibo/enpirikoa da, baina gizartearen parte gisa ez du muga politiko propiorik sortu: **“euskaldun-partea” “abertzale-partearekin” kateatutako eduki baliokide gisa azaldu da: onerako eta txarrerako? Beste kateatze hegemonikoetan hizkuntzak duen/ez duen presentziak ziurtatu al dezake bere zentralitate soziala eta iraupena?** “AHTgelditu-korrika-presoa etxera” ekibalentzia kateatzeak, ziurtatuko al du euskararen transmisioa? Ba al dago kate alternatiborik?

# HIRU KATEATZE/ARTIKULATZE HEGEMONIKO, baliokidetzan logikapean



Orain arteko

## ARTIKULAZIO HEGEMONIKO ZIRKULARRA: hegemonia politiko abertzaleak euskal kulturaren hegemonizazioa... (%20tik-%30era, transmisioa)



-“Euskaldun unibertsal” horren partikular hegemonikoa, “abertzalea” ote da, jada? “Kalaka sindromea”


-“Abertzale unibertsal” horren partikular hegemonikoa, “euskalduna” ote da, jada? “Gure hizkuntzak” leloa.

-Hortaz, “euskal herritar unibertsal” horren partikular hegemonikoa, “abertzale euskalduna” ote da, jada?




# Nola, eta Nondik nora?

## Demokratizazioaren ibilbidea Euskal Protesta zikloan




# H.1. GIZARTE MUGIMENDUEN LOGIKAK



# NOLAKO LISKARRA? Antagonismoaren lekuak

Tentsio demokratiko liberala



<b>Barnera/ pareka</b>				
<b>Logika</b>	Indar hutsa	Protesta auto-mugatua	Elkarrizketa arrazionala	Lehia oligarkikoa
<b>Eragileak</b>	Armadak	Gizarte mugimenduak	Herritar aktiboak	Alderdi politikoak

Herritar  
(aktiboegia)  
Soldadu-  
objektua

Gizarte kapitala (parte-izatea)  
Parte-hartze oldartsua / Parte-emate arautua

Herritar  
pasiboa

Gizarte  
mugimenduak

Gizarte  
aldaketa



### MEKANISMOAK

- **Artekaritza:** deslotuak, des-mobilizatuak dauden gizarte guneak artekatzea (artikulazioa)
- **Polarizazioa:** muturren urruntzea eta tartekoen muturtzea (antagonismoa)
- **Berrikuntza:** diskurtso eta jarduera mobilizatzaile berrien ziurtasun eza



1. “Herri-batasuna”

2. Euskal herria/  
Erakunde-sistema

3. ETAren sorrera

Protesta zikloaren hasieran...

# PROTESTA ZIKLOAREN AMAIERAN...


## NAZIOGINTZA POLITIKO GARAIKIDEAREN MOTOR HEGEMONIKOA, KRISIAN?

Boteretik



Eraginera

Sinbiosi  
liskartsua



Herri  
"Nazionalista"

Erakunde  
"Nazionalista"

<b>HERRIGINTZA ORUBEA</b>	EH="PTV"	EH="Euskal Gizartea"
<b>LOGIKA</b>	Utopiaren kudeaketa Mugimendu oldartsua Populista (abertzalea)	Ongizatearen kudeaketa Euste-horma "Interes orokorra"
<b>KRISIA</b>	Alternatibitatearen porrota	Zentralitatearen porrota

### DETONATZAILEAK



Atzera begira: ETA/EAJren garaitezintasunaren mitoaren haustura sinbolikoa; anti-sistemikoa, sistemaren zutabe... Oreka galtzea.



Aurrera begira: Kultura berriak ekosisteman, barneratzeko/parekatzeko gaitasuna? Euskal etnia mundu globalean, globala euskal lurraldeetan...

-Politika (abertzalearen) krisian, harekin kateatuta egon den hizkuntza komunitatearen etorkizuna ere, krisian?

**-ERAGINA:** Aitaren etxea utzita, plazara? Kriseilua hartuta etxez etxe zabaldu amaren sua?

**- IDENTITATEA:** Basora? (<http://video.movies.go.com/thevillage/main.htm>) Edo Butler: "kode dominatzaileen desplazamendu performatibo" hori, nola?

### Edo OPERAZIO HEGEMONIKO BERRIA (Laclau eta MTT)



ALTERNATIBAK ULERTZEKO... lehen aipatu dugun sailkapena jasoko dugu (Cohen & Arato):

<p><b>BOTERE-POLITIKA (AITAREN ETXEA)</b></p>	<p>LELO DISKURTSIBOAK: “Gurea egin, haiek egin ez dezaten”, betoa/alternatiba, liskarra/protesta, gizarteak Estatua menpeko, gizarte zibilaren autonomiarik ez, erradikalismoa, botere-alternatiba, Kontra-boterea: <i>(Alter)Politics community</i>.</p>
<p><b>ERAGINAREN POLITIKA (SEME-ALABEN LOBBYING-A)</b></p>	<p>LELO DISKURTSIBOAK: “Guk eragin haiek aldatu daitezten/ dezaten”, gizarte zibilaren autonomia eta eragina gizarte politikoan. Liskar irekirik ez. Partehartzea: <i>issue/policy network</i>.</p>
<p><b>IDENTITATE-POLITIKA (AMAREN SUA)</b></p>	<p>LELO DISKURTSIBOAK: “Guk geure izaerari eutsi, haiek egin dezatela nahi dutena”. Gizarte zibilaren autonomiara itzuli, identitatearen aldarrika, liskar mugatua, gizarte zibilaren aldaketarako lekukotasun garbia. Nortasun borobila: <i>Policy community</i></p>

Esamolde zaharberritua: “hiruetan jarrai”... bideak moldatuz, eta tentuz”

Zein jarduera “hegemoniko” euskal “tribua” bizi dadin? (M.Irizar)


Atzera begira



**Botere paradigma zaharra: Naziogintza historikoa.(60. Hamarkadatik)**

- Artekaritza mugatua eta barne “hegemonismoa”(aita/semea lehian).
- Polarizazio eremu antzuak.
- Diskurtso eta praxi zaharkituak.

Aurrera begira



**Identitate/Eragin paradigma berria: Eredu multi-kultural liberala.**

- Artekaritza/ekibalentzia unibertsala:“Euskal Herririk”ez euskal identitaterako.
- Polarizazio eza. Mitxelena...
- Diskurtso/praxi neo-instituzionalak: Lobbying. (Amaren sua, etxez-etxe).

**KRITIKA: Politika non? Despolitizatzea: “partea eta kontsentsu pidgina”. Artikulazio kate objektiboegia: hizkuntza. Helduleku errazagoen beharra: abertzalea, aurrerakoia, Athletikekoa... Nafarroako kontra-eredua**

**Botere-paradigma (populismo) berria (aitamaren etxe berria), politikoki nola?**



Artikulazio/Artekaritza eredu berriak. Zein da Nazio kulturala garatzeko Ekibalentzia katerik egokiena?

Antagonismo/Polarizazio Egokia. Zein modutan adierazi behar da antagonismo sortzailea? (barne-kanpo)


Diskurtso eta praxi Berritzaileak. Zein da “lokarri/helduleku” egokia?





Hala, Euskal NAZIOAK euskal HERRIA (nazio politikoa) behar du, alabaina, batetik, **“GU” horien mugak** etengabean ari dira definitzen eta birdefinitzen... eta, bestetik, nazio kultural eta politiko horrek gaur behar duen tresna juridikoa ezin daiteke aurrez definitu, baina ezta aurrez mugatu ere...

Hortaz, AMAITZEKO, APALTASUNA:  
GIZARTEAREN ZAURIA SENDAEZINA DA...



**UTOPIA: Euskal Nazio Totala** (nazio=herri=estatu)  
**Praxi modernoa A:**  
**“ezina ekinez egina”**  
(ez nekea, ezta bide txarra, gu euskaldunak gara, Euskal Herrikoak),

**Inozoak**  
(ez dakigu ezin dela, eta horregatik ekiten diogu),

edota  
**EUTOPIA**  
posmodernoa,  
Ironikoa, ezinezko ezinbestekoa:

**“ekina ezinez egina...”**  
**Adibidez:**  
**Independentziaz seduzitu.**

**DISTOPIA: Euskal erlijio pribatua.**  
**Praxi modernoa B:**  
**“eginez ekina ezin”.**  
Pixkanakako Politika (Popper).

**Zinikoak**  
(jakin badakigu ezin dela, eta horregatik ekiten diogu),

# Konklusio gisa, zazpi puntu eztabaidarako

- **Euskal kulturgintzaren transmisioa azken 40 urteotan, abertzaletasunaren hegemonia politikoaren ondorio zuzena da.** Hegemonia politiko, eta hegemonizazio prozesu kulturalen euskarri nagusia 60. Hamarkadan hasitako protesta zikloa izan da, “populismo abertzalea” ardatz. Bereiztezinak izan dira euskalgintza eta naziogintza politiko eredu hori.
  - Naziogintza ziklo horren amaieran, botere politikatik eragin politikara doan ibilbidean azken urratsa ematear gaude: azken arloa, biolentziaren monopolioaren ukapenaren ukapena. Jauzi horretan **hegemonia politiko abertzalea kolokan dago.**
  - Krisian dagoen naziogintza politikotik askatua, **euskalgintza eragin politikara (lobbya) bideratu daiteke eta euskal komunitatea identitate paradigmara (tribua):** parte legitimoa bai, baina ez unibertsalaren lekua hartu duen parte. Eredu liberala: parapolitika.
  - Unibertsalaren lekua abertzalea ez den parteak hartuko balu, parte horren artikulazio hegemonikoan euskarak ez du lehentasunik. Kulturaren transmisiorako, alde batetik, balizko hegemonia politiko berri hori baliagarria izan daiteke, EAEn egungo **locus hegemonikoaren kolorea ez delako neutrala**, euskal identitatean barneratze minimoa eskatzen du. Dena den, oraindik orain euskalduntasuna ez denez kate-begi nagusi artikulazio hegemoniko alternatiboan, emaitza logikoena **“euskal/erdal kultura pidgin”** bat da. Euskara despolitizatze eredu: bakoitzak bere egitura, bestearen “koloreak” hartuta. (Donostiako euskara/Txomin del regato)
  - Hortaz, helburua ez bada soilik **“kultura pidgin”** bat, orain euskal/erdal munduan indartzen ari dena, hegemonia politiko abertzalea berrindartu beharko litzateke. Demokratizazio/barneratze ziklo berria abian jartzeko.
  - **Hegemonia abertzale eraberritua behar da** pidgin kulturatik, **“kultura-lingua franca”** izatera pasa nahi bada, euskararen lurraldeetan guztiok konpartituko dugun gertuko kultura, (ingelera, kultura franko globala den bezala) gazteleraz, eta frantsesez, edota beste hizkuntzetan ere arituko den euskal herrian. Parte (euskara) osotasunaren (euskal herria) adiera. (Behikularra)
  - Beraz, lehen bezala, oraingoz, **euskararen hegemonizazioak (transmisioak) hegemonia abertzalea behar du**, eta honek **botere-politika** eskatzen du, baina parametro berrietan. Ziurrenik, beste **bi paradigmekin batera jokatuz: Identitatea (tribua), eta eragina (lobbya).**
- Hiruetan jarrai.**